

### TXEKOSLOBAKIA



Gutxitan ikusi izandu da zínismo handiagorik, fariseismo nazkanteagorik, politika zitalagorik. Beñi eta berriro indarraren legea agintari, indarra nagusi. Sobietarrek eta bere monagilloek, libertadearen usaia entzun ere ez dutela egin nahi demostratu digute. Argi dago, nazioartekotasuna esaten dutenean inperialismoa irakurri behar dela, «kontrarreboluzioa» diotenean benetako erreboluzio sozialista, kapitaldunen inperialismoa alitazen dutenean, sobietar Inperialismoari itzala egiten diona adierazi nahi dutela.

«Abertzaletasuna ta rebisionismoa: ara hor, gure etsaiak» zion Mozku' ko irratiak Txekoslobakia'ko gertaerak komentatuaz. Ezin zitekean hobeto mintza. Inperialista batentzat gauzarik okerrrena ta bildurgarriena horixe baida: menpekoek abertzale biurtzea. Menderatzaillaren abertzalekeri itsuaren aurka, menderatutakoen abertzaletasun jatorra esnatzea. Baiñan ez hori bakarrik. Rebisionismoa ere bildurgarria da inperialistentzat. Menderatzaillera danean egia zer den erabakitzen duena nola ez da ba izango arriskugarria honentzat menderatuek interpretazio hori zuzena ez izatea gerta ditekela pentsatzen astea?

Gertaera hauek nazioarteko politikarentzat atzerakada izugarria dira, gerla otzaren berpiztea baidira.

Sobietarrak munduko kontserbadoreen aliadu onenean eta seguruenean biurtu dira. Orain, gauzak ez dirala aldatu behar diotenak arrazoi dutela esango dute ta. Hauek, gauzak aldatu nahi dituzten guztiak komunistak dirala esango dute eta sobietarrak ba dakizute nolakoak diran, esango dute irriparrarekin. Jakiña, zapalduak izan diran txekatiarrek nahi zutena ez zela kapitalismora bueltatzea, sozialismo jator bat, sozialismo libre bat jasotzea baizik esatea ahaztu egingo zale.

Orañi edozeñi gobernuak nahikoa izango du oposizioari «komunista» txartela erastea hau erabat desprestijiatutzeko ta hauen kontra amerikanoen laguntza gutzia izateko, Foster Dulles'en garaletan bezala.

Izan ere gerla otzak horixe esan nahi du batez ere: inobilismoa, mundua dagoen bezala uztea. Beraz, oraingoz gauzak dauden bezala gelditzea komeni zaienak, kontserbadoreak, dira abantaila andienak jasoko dituztenak. Gaiñontzekoak, egoera hontan zapalduta daudenak, izurra ditezela! Lehenago esan dugun bezala sobietarrak eta bere monagilloak biurtu dira —aurretikan ere ba ziran egia esateko— reaktionario ta kontserbadoreen laguntzaillerik onenak.

R. A.